



EBAZPENA, 2009KO AZAROAREN 30EKOA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEARENA, EAE-KO IZENDEGI GEOGRAFIKOA EGITEKO KONTRATUA (K-37/2009) BEHIN BETIKO ESLEITZEKO DENA

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2009ko urriaren 9ko Ebazpenaren bidez, idazpuruan adierazitako kontratazioari buruzko K-37/2009 espedientea onartu zen, esleipen prozedura bezala publizitaterik gabeko negoziatua erabiliz, Alor Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 158 e) eta 161.2 artikuluekin bat etorritz.

Bigarrena.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2009ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, behin-behinean esleitu zitzaion idazpuruko K-37/2009 espedientea ESTUDIOS GIS-GEOGRAMA Aldi baterako enpresa elkarteari.

Hirugarrena.- 2009ko azaroaren 10ean behin-behineko esleipena argitaratu zen EAEko Kontratatzailearen Profilean (www.euskadi.net/kontratazioa), halaxe agintzen du eta Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak 135.3 artikuluan.

Laugarrena.- Enpresa esleipendunak 2.938 euroko bermea jarri du (F200901260 eta D200901261) Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian, legeak agintzen duen epean eta moduan, eta era berean Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean izatea frogatu du.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu zen egunaren biharamunetik hamabost egun baliodun pasa direnez eta esleipendunak bermea garaiz eta forma egokian aurkeztu duenez, bidezkoa da behin-behineko esleipen hori behin betiko bihurtzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 135.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Bigarrena.- Kultura Sailaren egitura organikoa onartu eta kontratazio-alorreko eskumenak finkatzen dituen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 7.2.i) artikulua kontratazio arloko funtzioak esleitzen dizkio Hizkuntza Politikarako sailburuordeari.

Espedienteko dokumentazioa, aipatutako lege-arauak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen orokorrak ikusi ondoren, hau

**EBATZI DUT:**

Lehenengoa.- GEOGRAMA, S.L. (IFZ B-01256247) – ESTUDIOS GIS, S.L. (IFZ B-01267541) aldi baterako enpresa elkarteari esleitzea behin-betiko "EAE-ko Izendegi Geografikoa" egiteko kontratua (K-37/2009 espedientea), enpresak egindako proposamen teknikoaren arabera eta ondorengo eskaintza ekonomikoaren arabera hau da, 58.750€ eta 9.400€-ko BEZarekin, hau da guztira 68.150€, aurrekontuetan honela banaturik:

- 2009. urtea: 17.037,50 €.
- 2010. urtea: 51.112,50 €.

Bigarrena.- Lanak egiteko epea hilabete batekoa izango da kontratua sinatzen den hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.- Behin betiko ebazpen hau kontratatzailearen profilean argitara dadila agintzea.

Laugarrena.- Formaliza bedi kontratua, dagokion administrazio-agiriaren bitartez, horretarako behin betiko ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eta azaroaren 30a baino lehen, aldi baterako enpresa elkarteak eratze eskritura publikoa aurkeztu beharko du, bere iraunaldia kontratuarena izango delarik.

Bosgarrena.- Ebazpen hau kontratantearen profilean argitaratzea (www.euskadi.net) eta interesdunei jakinaraztea.

Seigarrena.- Ebazpen honek ez du administrazio bidea bukatzen eta, hortaz, gora jotzeko errekurtsua jar dakiokela Kultura sailburuari, hilabeteko epean idazki hau jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 30ean

RAMON ETXEZARRETA AIZPURU

